

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

kokoriko	Arnasa berdindu bitartean, hilerriko itzalei so egon zen, gainalde estuan kokoriko .
perlesiaturik	Ideiak perlesiaturik eduki zuen segundo batzuez.
melenga	Hilobirantz abiatu zen, zambiluka hasieran, tinkoago berehala. Hezetasun melenga bat zegoen airean.
haga	...dardarka, lurrean sakabanaturiko bihurkin, mailu eta giltzak jaso eta bizkar zorrora bihurtu zituen. Burdinazko haga bat hartuta, hilobira hurbildu zen.
doako	...zaborra besterik ez zuen aurkitzen postontzian. Propaganda, ordain agiriak eta doako aldizkari hutsalak.
idazpuru	Sinadura kiribildu baten azpian F.J. Dasilva irakurtzen zen. Idazpuruan , enpresaren izena eta Iruñea hegoaldeko industriagune bateko helbidea.
abaildu	Pisu handi bat sentitzen zuen bularrean, biriketako airea porlan bihurtu balitzaio bezala. Azkenean, atzean zeukan aulkian abaildu zen.
eltze	Hiru egun lehenagoko babarrun eltzea atera zuen.
kakaztu	Eskaintza eta eskaera. Bai poetikoa. Gauzarik ederrenak ere kakaztu egin behar.
erran	Zergatik ez zion ezer erran ? Zeren beldur zen?
birao	Iratzargailua bilatu zuen haztamuka, baina botoia behin eta berriz sakatuta ere txirrina ez zen isildu. Birao bat hortz artean, burua atera zuen tapakien azpitik.
mesanotxe	Dasilva haren eskutitza ikusi zuen mesanotxearen gainean. Amorrua piztu zitzaion.
karrika	Korrika abiatu zen, goizeko trafikoak hartutako karrikak ahal bezala zeharkatuz. Hatsanka iritsi zen Mirenen karrikara...
hatsanka	Hatsanka iritsi zen Mirenen karrikara, Mirenen aitaren Audia urruntzen ikusteko garaiz.
ahopean	— Unetxo bat, mesedez —neskak telefonoaren tekla bat sakatu eta ahopean hitz egiten hasi zen.
dolu	— Auto istripu batean hil ziren. Dasilvaren aurpegiak dolu keinu neurtu bat azaldu zuen.
mahuka	Dasilvak mahuka motzeko polo bat janzen zuen.
lipar	Lipar batez, Jonek erakusten zion argazkiari so egin zion Dasilvak.
atalondo	Motorraz ibiltzeko arropak erantzi eta atalondoan eskegi zituen. Korridoreko ateei begiratu zien berriz.
ukabila	Dasilvak ukabilaz jo zuen mahai gaina. Zergatik oroitu behar zuen orain aitaz?

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

kinka	Hala ere, nahiko natural jokatu zuen kinka hartan. Odola hotz eduki zuen elkarriketa osoan, zentzuzko erantzunak eman zizkion nazkante hari.
hizpide	Neskak pozik onartu zuen. Ez zuen hizpidera ekarri goizeko hutsa. Lan elkarriketaz galdetu ziotenean...
trumilka	Halako batean ikastolako atea zabaldu eta haurrak trumilka ateratzen hasi ziren. Berehala ikusi zuen Jonek Anderren ile kizkurra.
brodaturik	—Nire izena darama atzealdean brok... brod... — Brodaturik –lagundu zion Marianok.
aseptiko	Hormen koloreak eta apaingarri abstraktuek bake aseptiko bat transmititzeko pentsatuak ziruditen.
anabasa	Ez dut ezer botatzeko ohiturarik, baina, horrexegatik, paper anabasa izugarria dut. Garrantzitsua da telefono hori?
aitzindari	Xabierrek gogora ekarri zuen airea kutsatzen zuen tentsio hura, elektrizitatea bezalakoa, geroago lehertuko zen ekaitzaren aitzindari .
alu	Gaske alu hauek botilak supermerkatuan erosi eta karrikan edaten ditiztek.
peto-peto	Segurtasun enpresa bat du, tipo errespetagarriaren itxura peto-petoa .
kunplimendu	—Doktoretza bat behar da gero zure kunplimenduak ulertzeko —Mirenen ahotsak doinu iradokitzaile bat hartu zuen—.
aldarte	Haren aldarte berri-suagoa bilatu dut kontu pertsonalagoak jorratzen saiatzeko.
arindua	Ez zekien zer sentitu, dezepzioa ala arindua . "Logalea besterik ez diat sentitzen", pentsatu zuen.
maluta	Elurra hasi zuen, maluta bakan batzuk besterik ez, baina errepidearen egoerak kezkatzen zuen Jon Ander.
nahigabe	Seguru nago zinemarena amaren ideia izan dela atzoko nire nahigabea baretzeko
ganoragabekeria	Badaki nola jartzen nauten kabroi horren ganoragabekeriak .
ukondokada	—Ez da horren atsegina —Mirenen ukondokadari iskintxo eginez, ohetik atera eta berokiko sakelara bilatu zuen.
narritadura	...—Erran zuen mirenek, Sandraren edertasunaren aipamenak eragindako narritadura ahotsean—.
zanpatu	“Dasilva itzuli duk”, pentsatu zuen, “putakumeei barrabilak moztu eta muturrak zanpatzera ”.
koka	Kokaren ontzixoa berriz atera eta tiro pare bat hartu zuen.
etsi	Haurrak telefonoa berreskuratu zuenean ez zuen etsi filma amaierara arte kontaktatu arte.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

miatu	Sandraren gauzak miatu nituen, haren desagerpena azal lezakeen zerbaiten bila, baina alferrik.
aldrebesena	—Denetarik pentsatu nuen. Halako egoera batean hipotesirik aldrebesenak bururaten zaizkizu.
aurreseñtipen	—Ez. Zorionez, aurreseñtipen horiek filmetan bakarrik gertatzen dira. Ez nuen inorekin hitz egiteko gogorik, hori zen dena.
hizpidera atera	Ezustean azaldu eta istorio zahar horiek hizpidera atera nituen.
lerratu	Haizeak pagoen adar biluzien artetik lerratzen zuen elurra.
sentiberago	Baina langabe izateak aldatu egiten dizu ikusmoldea, sentiberago bihurtzen zaitu porrotarekiko.
apareju	—Garbi dago Dasilva hori apareju ederra dela, baina ezin diozu zure familiaren heriotza egotzi.
makurtu	—Eman dezagun —Jon aurrerantz makurtu zen beroturik.
utzikeria	Birao bat xuxurlatu zuen Jonek. Utzikeriaren poderioz etxea hondatzen ari zitzaion.
borra	—Zer egin behar duzu borra horrekin, moñoña horrek?
aztoratu	Gertaturiko guztiaz pentsatu behar zuen, baina burua aztoratuegi zeukan.
aldagailu	—Autoaren aldagailua loka zegoen: punto muertoan.
liseritu	Une luze batez bihotzaren taupadak besterik ez zuen entzun, izugarrikeria hura liseritzen zuen bitartean.
iradoki	Baina motiboez ari garela, zuen adiskideetakoren batek iradoki zidan zure emazteak amorante bat izan zezakeela.
amorante	Baina motiboez ari garela, zuen adiskideetakoren batek iradoki zidan zure emazteak amorante bat izan zezakeela.
herrestan	—Hara nor agertu den! —erran zuen. Hitzak herrestan ebakitzen zituen.
atorra	Bola bat egin zuen odolez zikinduriko atorra eta prakekin.
mamuzko	Iriarteko etxeko hotsak entzuten zituen, urrun, mamuzko .
likatsu	Mugikorra mahai gainean utzi zuen. Likatsu zegoen izerdiagatik.
entzungor	Balak xuxurlatzen zizkion entzungor , eskailerak lasterka jaitsi eta autoan sartu zen.

Izen-deiturak: Maila-taldea:
 Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.
 Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

bihurgune	Belateko mendateko bihurgune batean gertatu zen.
apaldu	Apaldu ahotsa, arraioa.
harat-honat	Jon amorratu egin zen morroi hura bere etxean harat-honat ikusita.
bihurkina	Gizonak zerbait seinalatu zuen bihurkinaren puntaz.
amore eman	Ezezagun hari amore ematen ari zitzaiolako...
ezbehar	Zer dakizu nire familiaren ezbeharraz ?
dilindan	Esaldia dilindan gelditu zen egongelako airean.
atxiloketa	Atxiloketak hasi zirenean...
ohartu	...ohartxoak pasatzen nizkiela ohartuz gero?
espetxe	Espetxean nengoela etengabe pentsatu nuen...
txosten	Dasilvaren txosten psikologiko bat duzu?
agure	Agureak hariak mugitu zituen...
sutan egon	Sutan egotekoa zen!
traste	Traste alu hura itzaltzea ahaztuko zitzaidan.
motibo	Zer motibo dira horiek?
lagin	Nik Sandraren ADNaren lagin bat besterik ez dizut eskatzen.
putz	Xabierrek putz egin zuen...
xarma	Munduko xarma guztia...
iruzkin	Eguraldiari buruzki iruzkinak ...
hilobi	Sandraren hilobia suntsitu duzu, putakume arraioa.

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

bortitz	Nahiko modu bortitzean , egia erran. Zein zen Moure jaunaren egoera zure enpresan?
gabezia	Estimatuta dago. Zorionez, herritarren laguntza jasotzen dugu gure gabezien osagarri.
aldendu	...erreko balu bezala aldendu zuen Dasilvak telefonoa belarritik.
arrasto	Ez zuen inor ikusi. Gabriela eta Pilar hizketan ari ziren sukaldean. Mariñaren arrastorik ez.
konketa	Konketan aurpegia garbitu, besazpiak freskatu eta beste atorra bat hartu zuen armairutik.
antzeman	Jonek zalantza antzeman zion Juliaren ahotsari.
sakelaratu	Saltzaileak ezin zuen poza ezkutatu billete sorta sakelaratu zuenean.
brastako	Brastako bat egin behar izan zuen bolantearekin bere karrikaren hasierako zaborrontzien kontra ez joateko.
zipriztindu	Euri tanta batzuek aurreko kristala zipriztindu zuten
estura	Drogak arindu egin zion etxera itzultzean sentitu ohi zuen estura lausoa.
amarru	Mourek asmatuiko trikimailu bat, bera urduritzeko amarru ergel bat.
urtu	Ez zuen zentzurik garuna urtzeak .
atxur	Ez da harrizkoa ezer ez oroitzea, egun hartan zeneraman atxurra kontuan hartuta.
sabai	Gela gorritz margoturik zegoen eta sabai oso baxua zuen.
orein	Orein bat zegoen autobidearen erdian.
zirkinik ez egin	Animaliak ez zuen zirkinik egin mercedesa abailan hurbildu bitartean...
kordokatu	Zorabio arin batek kordokatu zuen...
lanbrotsu	...Mourek doinu lanbrotsuan , eta Xavier ohartu zen...
gerizatu	Jendeak nahiko lan du bere burua zaparradatik gerizatzen .
sarraila	Ez zen erraza eskularruekin lan egitea, baina atariko sarraila oso erraza...

Izen-deiturak: Maila-taldea:

Testuingurua aintzat harturik, eman ezkerreko zutabeko hitzen sinonimoak.

Azterketa honen balioa: puntu.

Zuzen:

Nota:

gonbito	Kolore iluneko gonbito bat biltzen zen poltsaren behealdean.
ahapeka	ON botoia sakatu eta hitz batzuk erran zituen ahapeka .
lastaira	Koadroak, komuneko tanga, lastaira ...
patu	Bakoitzak bere patua bilatzen zuen.
mortu	Espaloi mortuetan barrena ibili zen gaueko aire hotzaz gozatuz.
kalaka	Dasilva begira gelditu zitzaion eta tximino haren kalaka magiaz bezala isildu zen.
igarle	Pantailan igarle lodi batek espantuka mugitzen zituen besoak.
karrankaria	Mariñak barre karrankaria bota zuen.
koskor	Hainbesteko indarraz non zauritu egin baitzituen hatz koskorrak .
lakar	Azal lakar baten azpian sekretu gozo bat gordetzen duelako.
zartako	Bulegotik atera eta zartakoz itzi zuen atea.
oldartu	Berriz ixteko prest ezezaguna oldartzen bazitzaion.
xuxurlatu	Birao bat xuxurlatu zuen Jonek. Utzikeriaren poderioz etxea hondatzen ari zitzaion.
arraio	Apaldu ahotsa, arraioa .
loka	— Autoaren aldagailua loka zegoen: punto muertoan.
haztamuka	Iratzargailua bilatu zuen haztamuka , baina botoia behin eta berriz sakatuta ere txirrina ez zen isildu. Birao bat hortz artean, burua atera zuen tapakien azpitik.
tapaki	Iratzargailua bilatu zuen haztamuka, baina botoia behin eta berriz sakatuta ere txirrina ez zen isildu. Birao bat hortz artean, burua atera zuen tapakien azpitik.
moñoña	— Zer egin behar duzu borra horrek, moñoña horrek?
babarrun	Hiru egun lehenagoko babarrun eltzea atera zuen.
estimatus egon	Estimatusa dago . Zorionez, herritarren laguntza jasotzen dugu gure gabezien osagarri.